

2014KO URRIAREN 2AN EGINDAKO APARTEKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2014ko urriaren 2an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AITOR APRAIZ IMATZ jauna

Zinegotziak:

- PALOMA DE EPALZA GARCES DE LOS FAYOS
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA
- ELSA MARÍA IMATZ BASARRATE
- LUIS FLORENCIO ZABALA SANTA ANA
- GORKA RENTERIA GARAI
- FELICIANO JAUREGUIZAR ORAINDI
- ALBERTO BILBAO BELTRÁN DE GUEVARA
- AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA
- MIREN LUKE VERDES CEARRA
- JON PELI HORMAECHE ASOLO

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ezohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deustela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean ondorengo gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- UDAL AURREKONTUAREN 6. ALDARAZPEN ESPEDIENTEA EZEZTAPEN BAJAREN BIDEZ ONESTEA HASIKERA BATEAN.

KONPROMISO KREDITUEN ERANSKINAREN ALDARAZPENA HASIKERA BATEAN ONESTEA.

UDAL AURREKONTUAREN 7. ALDARAZPEN ESPEDIENTEA KREDITU GEHIGARRI BITARTEZ ONESTEA HASIKERA BATEAN.

A) Zinegotziek udal aurrekontuaren 6. aldarazpenaren espedientearen barri daukiela kontuan hartuta —gastuen aurrekontuaren aldarazpena da— Aitor Apraiz alkateak, aldarazpenaren nondik norakoaren azalpen laburtua emon dau, ondokoa esanez:

Arau subsidiarioen berrikuspenaren gastuei aurre egiteko, 2014ko gastuen aurrekontuko 432.642.00.01 partidan 150.000,00 euro dagozan ezker, horreetatik 33.840,00 eurori baja emoten jake; izan be, alkatetzaren apirilaren 7ko 128/2014ko dekretuaren bidez, arau subsidiarioen berrikuspen beharrak 116.160,00 eurotan esleitu ziran (BEZ barruan).

Segiduan, tramitatutako espedientea kontuan izanik, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru-Arauaren 33. artikulua arabera, EAJ/PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, bertaratutako zinegotzi gehienak izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu da:

2014ko udal aurrekontuari jagokon 6. aldarazpen espedientea hasikera batean onartzea, aldarazpenaren edukia hauxe izanik:

**2014ko GASTU BAJEN ERANSKINA ETA HARI DAGOKION KREDITU
ALDARAZPENA**

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Gaur egungoak	Aldarazpenak / Baja	Behin betikoak
432.642.00.01	Arau subsidiarioen aldarazpena	150.000,00 €	33.840,00 €	116.160,00 €
GUZTIRA		150.000,00 €	33.840,00 €	116.160,00 €

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaetxe zinegotziek, barriz, abstenidu egin dira.

B) Horren ostean, Aitor Apraiz alkateak dino konpromiso kredituen eranskina aldarazotea dala onartu gura dan hurrengo espedientea, arau subsidiarioak berrikusteko urte anitzeko kredituari baja emonaz, 2015 urteko kopuruari hain zuzen; horrela bada, 0.00 euroko kopurua ezarriko da, zinegotzietei emondako taulan ageri dan lez.

Segiduan, tramitatutako espedientea kontuan izanik, EAJ/PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, bertaratutako zinegotzi gehienak izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu da:

2014ko udal aurrekontuari jagokon konpromiso kredituen eranskina aldarazotea hasikera batean onartzea. Izan be, arau subsidiarioak berrikusteko urte anitzeko kredituari baja emoten jako, beti be 2015 urteko kopuruari (44.000,00 €) jagokonez; horrela bada, 0.00 euroko kopurua ezarriz.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaetxe zinegotziek, barriz, abstenidu egin dira.

C) Azkenik, udal aurrekontuaren 7. aldarazpena dala eta —kreditu gehigarriaren modalidadea—, alkateak adierazo dau, espedienteen ageri dan lez, helburua hauxe dala: udal aurrekontuaren 6. aldarazpenaren arabera, 432.642.00.01 partidatik baja emon jaken 33.840,00 euroak 121.933.00.05 partidari gehitzea.

Segiduan, tramitatutako espedientea kontuan izanik eta Bizkaiko Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru-Arauaren 34. artikulua arabera, EAJ/PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, bertarotutako zinegotzi gehienak izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu da:

2014ko udal aurrekontuari jagokon 7. aldarazpen espedientea onartzea, kreditu gehigarriaren modalidadean.

GASTUA EGITEA

Aurrekontu partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Gaur egun	Aldarazpenak	Behin betikoak
121.933.00.05	Hornitzaileei ordaintzeko maileguaren amortizazioa, 2012	27.148,37 €	33.840,00 €	60.988,37
GUZTIRA		27.148,37 €	33.840,00 €	60.988,37

GASTUAREN FINANTZAZINOA: KREDITU GEHIGARRIA

Gastu partiden kontzeptuak	Baliabidearen kontzeptua	Gastuen bajak
432.642.00.01	Arau subsidiarioen aldarazpena (mod presupuestaria 6)	33.840,00 €
GUZTIRA, GASTU GEHIKUNTZEN BERDINA		33.840,00 €

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaetxe zinegotziek, barriz, abstenidu egin dira.

2.- 2014KO APIRILAREN 1ETIK BAGILAREN 30ERA ARTEKO EPEARI JAGOKON UDAL AURREKONTUAREN BETEARAZPEN EGOEREAREN BARRI EMON.

2014ko apirilaren 1etik bagilaren 30ra arteko epeari jagokon udal aurrekontuaren betearazpenari buruzko txostena zinegotziek daukien ezkerro, Aitor Apraiz alkateak bertan dakarrenaren ganeko azalpen laburra emon dau, ondorengo esanez: *bagilaren 30ean aurrekontu iraunkortasunaren eta gastu arauaren helburuak beteten dira, finantzazino gaitasuna 383.784,82 eurokoa da (doikuntza planean finantzazino gaitasuna 302.713,47 eurokoa da), aintzatetsitako eskubide garbien zenbatekoa 1.957.269,29 eurokoa da eta aintzatetsitako betebeharrak garbien zenbatekoa, barriz, 1.357.205,33 eurokoa.*

Amets Jaureguizar zinegotziak, Bildu-Bakio taldearen izenean adierazo dau:

Batetik, aurrekontuko gastuen orriaren 64. artikuluan (gastos en inversiones de carácter inmaterial) ageri da kredituen zenbatespena 159.075,00 eurokoa dala (150.000,00 arau subsidiarioen berrikuspenari buruzkoa gehi 9.075,00 SR3 eremuko plan partzialaren aldarazpenari jagokona), baina maiatzaren 22ko 175/2014 zk. alkatearen dekretuaren bidez, gastu hori gitxitu egin zan 83.776,00 eurotan, beraz aldarazpena maiatzean egin bada bagilearen 30ean gastua ezin da izan 159.075,00 euro, ze izan beharko zan 66.224,00 gehi 9.075,00 euro.

Bestetik, itxitako ekitaldien atalean, 12.100 euro dauzala ageri da, eta ez dakigu zenbateko hori zelan agertu dan, ze atal horretan bai egon dira 9.000 eta 50.000 euro, baina zenbateko horren nondik norakoa ez dakigu.

Alkateak dinotso oraintxe bertan galdera horreei buruzko azalpen zehatza emotea gatxa dala, datuak zorrotz aztertu beharra dagozalako, baina ez dagoala ezelango arazorik informazino batzordean gai bi horreei buruzko argibideak emoteko. Eta, beraz, gaurko udalbatzarrean barri emon dan txostenean okerren bat egon ezkerro, zuzendu eta txosten horren barri hurrengo udalbatzarrean emon beharko litzatekela.

3.- 102/2014 DEKRETUAREN ARABERA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIARI DIRULAGUNTZA ESKATU JAKOLA ETA, DOIKUNTZA PLANGINTZAREN ALDARAZPENA ONARTU.

Atoan Aitor Apraiz alkateak, EAJ/PNV taldearen izenean, ondorengo hau adierazo dau:

Bizkaiko Foru Aldundiaren Lehendakaritza Sailaren abuztuaren 25eko 102/2014 dekretuaren arabera, dirulaguntza eskatu da, udalak hornitzaileei ordaintzeko erabili daian, eta, beraz, udalak daukan zorra eta diruzaintzako gerakina gitxitzeko helburuaz.

Horretarako, udalak helburu bi honeek bete beharko dauan konpromisoa hartu behar dau: batetik, 2015eko abenduaren 31rako diruzaintzako gerakina positiboa izatea (2013ko udal aurrekontuko likidazioaren diruzaintzako gerakina -1.276.159,05 izan zan); eta, bestetik, 2019. urteko abenduaren amaierarako udalaren zor finantzarioaren portzentajea diru sarrera arrunten %60koa baino gitxiagoa izatea (indarrean dagoan doikuntza planean ageri da helburu hori 2020. urtean lortuko dala).

Eta konpromiso hori beteteko udalak 2012ko abenduaren 7an onartu eban doikuntza plangintza aldarazo beharra dauka. Orain arte, 2013ko udal aurrekontua eta 2014koa (lehenengo sei hilabetei jagokenez), orokorrean, doikuntza plangintzaren arabera gauzatu diran arren, beti be zorraren eta iraunkortasunaren helburuari jagokenez; halanda be, aldarazpena bideragarria izateko zinegotziek daukien agirian azaltzen diran zazpi neurriak bete beharko dira.

Felix Jauregizar zinegotziaren galdereari erantzunez, Alkateak doikuntza plangintzaren aldarazpenean aitatzen dan urigintzari buruzko hitzarmenaren mamina azaldu dau, ondoko hau esanez:

Batetik, Udala Bakea esparruan lur-zati publiko baten jaubea da eta bertan merkataritza erabilerarako, gehienez, 680 m2.ko eraikigarritasuna izango leuken eraikina egin daiteke; bestetik, UMPRO enpresea, esparru berean, eraikigarritasun bako 1.845,77 m2. lursail baten jaubea da. Eta, hitzarmena gauzatzeko egin beharreko eragiketa, laburbilduz, hauxe izango litzateke:

“Udalak arau subsidiarioen aldarazpena izapidetuko leuke, bere lur-zatiaren sestra ganean merkataritza erabilerarako 1.500,00 m2.ko eraikigarritasuna izango leuken eraikina egin ahal izateko (aldarazpenak gaur egungo aparkaleku batzuk kentzea ekarriko leuke), eta beste horrenbeste m2. lur azpian. Ostean, udalak lur-zatia UMPROri emongo leuskio, eta, azken honek, horren truke, udalari aitatutako 1.845,77 m2.ko bere jaubetza urbanizauta (aparleku erabilerarako) emongo leuskio, gehi 350.000,00 euro, hau da, lursail bien artean dagoan balorazioen zenbatekoen aldea”.

Felix Jauregizar zinegotziak, BILDU-BAKIO taldearen izenean, galdetu dau arau subsidiarioen berrikuspenean egiten gabiltzan une honetan arauon aldarazpena egiteko ia momentu egokia dan, ze esan daiteke herritarrek, berrikuspen prozeduraren barruan, herriaren antolamenduaren ganean eritxiak eta proposamenak egiteko daukiezan aukeratik kanpo egin gura dala aldarazpena, enpresa pribatuaren nahira, herritarrei entzun barik.

Zinegotzi horrek dino be, uste dabela hitzarmen hori udalak daukan dirua batzeko premia dala-eta egin gura dala, hau da, onartutako doikuntza plangintza bete ezin dalako.

Alkateak era honetara erantzun deutso: *doikuntza plangintzaren aurreikuspenak bete egin dira 2012ko abenduan onartu zanetik hona, eta bete ez eze, orokorrean, plangintzan ipinitako aurreikuspen mugen azpitik ibili gara, espedientean dagoan agirian azaltzen dan modura. Beste kontu bat da doikuntza plangintza hemendik aurrera beteko dan ala ez, hori bere momentuan ikusi beharko da.*

Felixek dinotso:

Doikuntza plangintza beteteko asmoz, beteko diran segurtasunik ez daukagun neurriak onartzen dabil udala, esaterako hitzarmena, UEG2.1 jardununearen garapena (ez dakigu arau subsidiarioen berrikuspenean zelan jasoko dan), eta abar, eta hori guztia presaka diru preminagaitik.

2012ko doikuntza plangintza onartu zanean esan genduan zainpetu zan Obren, Instalazinoei eta Eraikuntzen ganeko Zergen (OIEZ) zenbatekoa puztuta egoala eta ez zala batuko, eta horrela gertau da; ganera, galdetu genduan be doikuntzan ipini zan zergaren zenbatekoa ipinita Foru Aldundiak plangintza zelan onartu eikien.

Alkateak erantzun deutso esanez zerga hori ez, baina beste parametro batzuk bete egin dirala eta aldarazpenean OIEZri buruzko zenbateko txikiagoak ipini dirala, baina, halanda be, Foru Aldundiak aldarazpenari ezetza emotea gerta leitekela.

Felixek dinotso:

Plangintzaren aldarazpenean OIEZri buruzko zenbatekoak udal arkitektoaren txostenean oinarrituta ipini badira, ez dira beteko, zerga hori dala-eta guztira aurreikusten dan diru-bilketa neurriz kanpokoa dalako (6.000.000 €), eta, ganera, txostena 2012an idatzi eban bardin-bardina da.

Horrezaz gain, aitatu beharra dago OIEZri buruzko zenbatekoak txikiagoak izan arren, aprobetxamenduak dirala-eta ipinitako zenbatekoak handiagoak dirala, 2014, 2015 eta 2016 urteei jagokenez behintzat; eta, hori aurrekoa konpentsatzeko egin da. Jakin gura dogu aprobetxamendu horreek zeri buruzkoak diran.

Aitorrek dinotso doikuntza plangintza orain arte bete egin dala, eta bide horrer eusteko aldarazpena beharrezkoa dala, beti be espedientean dagoan txostenean azaltzen diran neurri zehatz batzuen betearazpenaren baldintzapean.

Felixek adierazo dau be:

Bildu-Bakio taldeak 2012an esan eban banketxeei mailegua eskatzea hornitzaileekaz udalak eukan zorra kitatzeko, ez zala hartu beharreko bidea, horrek udala guztiz zorpetzea ekarriko ebalako. Eta, hortaz, talde horrek egin eban proposamena hauxe izan zan: *Foru Aldundiak udalen tutela finantzarioa dauan ezkerro, horrer dirua aurreratzeke eskatu hornitzaileei ordaindu ahal izateke eta udala Foru Aldundiari*

urtero-urtero joan zeozer itzultzen jasotako guztia ordaindu arte, udalak Udalkutxatik urtero-urtero %10 gitxiago jasoz; horrela herriko zerbitzu publikoak murrizketarik ez eben izango eta ez zan egongo interesik ordaindu beharrik ere.

Proposamen hori BILDUK Bizkaiko Biltzar Nagusian be egin eban (Felixek proposamen horrerri Foru Aldundiak emon eutsan erantzuna irakurri dau), eta erantzunaren pasarte batean Foru Aldundiak dino ekonomiaren aldetik txarto dagozan udalek (euren kudeaketaren erruz), eurak hartu behar dabezela neurriak ekonomia egoera onera eroateko, eta ezin dirala ekonomi kudeaketa zuzena egin daben udalen pentzura finantzatu.

Baina, horren aurrean galderea da, Foru Aldundiak esan dauana esanda, ia zein dan arrazoa horren ostean 68/2013 eta 69/2013 dekretuak kaleratzeko, hau da, dirulaguntzak emoteko.

BILDUren proposamena aurrera atera bazan, udalak beren zorrak berak ordainduko ebazan. Foru Aldunditik dirulaguntzak lortuta, zorra ordaindu bizkaitar guztien pentzura egingo da, ordea.

Hori guztia dala-eta eztabaida sortu da Aitorren eta Felixen artean.

Azkenik, tramitatutako espedientea kontuan izanik, EAJ/PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, bertaratutako zinegotzi gehienak izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu da:

1.- 20012ko abenduaren 7an onartutako doikuntza planaren 1. aldarazpena onartu

2.- Hemen hartutako erabagia eraginkorra izateko, Bizkaiko Foru Aldundiaren Udal Harremanen Sailak aldeko txostena egin edota baimena emon beharko dauala.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaetxe zinegotziek, barriz, doikuntza plangintzaren aldarazpenaren aurkako botoa emon dabe, Felixek egindako adierazpenakaz bat etorritz.

4.- ERRENTERIA SUR-3 EREMU URBANIZAGARRIAREN PLAN PARTZIALAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONARTU, HALA BEHAR BALITZ, BETI BE, AURKEZTUTAKO ALEGAZINOEN GANEKO ERABAGIA HARTU OSTEAN

Espedientean gai horrezaz ageri diran aurrekariak honeexek dira:

1.- Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta Hirigintza Sailak, garagarriaren 29ko 837/2008 Foru Aginduaren bitartez, SUR.3 (Erreneria) egoitzazko eremu

urbanizagarriko Plan Partziala behin betiko onartu eban. Izan be, Foru erabagi hori 2008ko irailaren 13ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zan, eta planaren urigintza arautegia, ostera, 2011-11-24ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Harrezkero, udalaren ekimenez, Plan Partzial horren aldarazpena idatzi zan, aldarazpenaren nondik-norakoa hauxe izanik:

Aldarazpenaren bidez, indarrean dagoan plan partzialean ageri dan gehieneko etxebizitza kopuruaren antolamenduaren parametroa (ez da loteslea) aldatu egiten da, horrela bada, etxebizitza gehiago egin eta bakotxaren azalera murrizteko aukerea emonaz, gaur egungo merkatuaren eskaria eskaintzaren arabera egokituz; eta, horretarako, ekipamendu publikoei jagokenez, urigintza-legeriak eskatzen dauzan estandarrak justifikatuz.

Ondorengo organoen txostenak jaso ziran, euren ebazpenak honeexek izanik:

URA-Ur Agentziak, 2013ko maiatzaren 10eko txostenaren bidez, adierazoten dau aurkeztutako dokumentazioa aztertu dauan ezkerro, plan partzialaren aldarazpena ontzat emoten dauela.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Sailak 2013ko abenduaren 20ko 2003 zk. Foru Aginduaren bidez, ondorengo hau ebatzi dau: Errenteria SUR-3 eremu urbanizagarriaren plan partzialaren aldarazpena ez litzateke egongo ingurumeneko ebaluazino estrategikoari lotuta egongo, beti be aldarazpen hori sektorea zeharkatzen dauan errekaostaren elementu berariaz sentiberak ukituko ez dauzan urbanizazino proiektu baten bidez garatuko balitz.

2.- Alkatetzaren apirilaren 2ko 121/2014 zk. Dekretuaren bidez, Plan Partzialaren aldarazpena hasikera baten onartu zan.

3.- Horren ostean, espedientea hogeitaz asteguneko epean informazino publikoan egon zan, horretarako iragarkiak ipini ziran eta, bai 2014ko maiatzaren 8ko egunkari bitan, bai 2014ko maiatzaren 9ko 87 zk. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, bai herriko iragarkitaulan, bai eta Bakioko Udaleko web orrian be. Horrezaz gain, eremuko jaubeei entzunaldia emon jaken.

4.- Espedientea jendaurrean egon dan epean eta entzunaldi tramite barruan, ondoren aitaturako interesatuek alegazinoak aurkeztu ebezan, eta horreei buruzko txostenak espedientean barruan dagoz:

- *Ibon Gamboa Santorcuatok, 2014-05-20an (sarrera erregistroa 608.a)*
- *Luis Sierra Muguerzak, 2014-06-3an (sarrera erregistroa 688.a)*
- *SUKIA, 2014-06-19an (sarrera erregistroa 719.a)*

Segiduan, zinegotzien eritxia entzuteko txanda heldu eta Felix Jauregizar zinegotziak, BILDU/BAKIO taldearen izenean, adierazo dau aldarazpena idaztea Sukia enpresearen

nahia izan dala. Ganera, aldarazpena egin beharra hitzarmen baten azaltzen dala, eta ikusita udala Sukiaren nahia edo eskabidea beteten ari dala, galdetu dau ea Sukiak bere konpromisoak bete dauzan

Alkateak erantzun deutso esanez Sukiak ez dauala herriko lur-sailaren salmentagaitik jagokona ordaindu, eta, beraz, horren aldetik ez dauala bete.

Felixek dino: plan partzialean jasoten dan etxebizitza kopurua, aldarazpenaren bidez, kendu gura da eraikigarritasuna bere horretan itxiz, argudiatuz etxebizitza kopurua ipintea ez dala derrigorrezkoa, horretarako bagilaren 30ko 2/2006 lurzoru eta urigintza legea baliatuz, baina galderea da etxebizitza sozialei jagokenez plan partziala ea zergaitik ez dan lege horretara egokitzen.

Idazkariak dino Plan Partziala lehendik onartuta dagoan ezkerro, ez dala derrigorrezkoa lege horretara egokitzea etxebizitza sozialei jagokenez.

Felixek dino be: aldarazpen hau ikusita esan daiteke udala Sukia enpresearen esanetara dabilela, azken honek bere konpromisoak bete ez arren, esaterako, udalari ez deutso ordaindu udal lursailaren prezioa.

Amets Jauregizar zinegotziak adierazo dau: *aldarazpen honen bidez Sukiak etekina aterako dauala jakinda, etxebizitza gehiago egin ahal izango daualako jakina, udalaren aldetik enpresa horrerri ezin jako konpromiso gehiago eskatu? Esate baterako, etxebizitza tasatuak eta babes ofizialekoak gehiago egitea.*

Alkateak era honetara erantsun deutso: *oraingo plan partzialean azaltzen diran etxebizitza mota horreen adjudikaziodun potentzialak bilatzeko epea zabaldu zan arren, ez zan eskabide nahikorik batu, eta aldarazpenaren bitartez, behintzat, etxebizitza gehiago egiteko aukerea izango dan ezkerro, eurok azalera txikiagoak eta merkeagoak izango dirala pentsaurik, uste da erosi jende gehiagok izena emongo dauela horreek erosteko; hortaz, aldarazpenari esker, etxegileak errazago saldu ahal diran etxebizitzak egiteko aukera izango dau. Beraz, horrek Sukiari finantzazino bidea emongo leuskio SR-3 eremuaren urbanizazinoaren garapenari hasikera emoteko, bai eta udalagaz daukan konpromisoak beteteko be.*

Horrenbestez, bete egingo da Eusko Jaurlaritzaren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 95. artikuluan ezarritakoa eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan Legearen 22.2.c) eta 47.2.i) artikuluetan azaldutakoa. Udalaren Osoko Bilkureak, Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz EAJ/PNVko zinegotzien aldeko botoakaz, zinegotzien legezko kopuruaren gehiengo osoa osotzen dabela, horretarako espedientean dagozan agiriekaz bat etorritz, honakoa erabagi dau:

1.- SUR.3-Errenteria egoitzazko eremu urbanizagarriaren plan partzialaren aldarazpenaren espedienteari buruz, udaleko zerbitzu juridikoen 2014ko irailaren 22ko txostenean azaldutako arrazoiak dirala eta, *Luis Sierra Muguerzak* idatziz

aurkeztutako alegazinoa ez onartzea.

2.- SUR.3-Erreterria egoitzazko eremu urbanizagarriaren plan partziala aldarazpenari buruz, udal arkitekto aholkulariaren 2014ko irailaren 25eko txostenean azaldutako arrazoiak dirala eta, *Ibon Gamboa Santorcuato jaunak* idatziz aurkeztutako alegazinoak ez onartzea.

3.- Udal arkitekto aholkulariak 2014ko irailaren 25ean egindako txostenean azaldutako arrazoiak dirala eta, *Sukia* enpresek idatziz aurkeztutako alegazinoak baiestea eta, ondorioz, SUR.3-Erreterria egoitzazko eremu urbanizagarriaren plan partzialaren aldarazpenean txosten horrek aitutzen dauzen aldarazpenak sartzea.

4.- Bakioko urigintza plangintzari buruzko arau subsidiarioetako SUR.3-Erreterria egoitzazko eremu urbanizagarriaren plan partzialaren aldarazpena behin-behinean onestea, beti be egindako alegazino eta txostenen ondoriozko aldarazpenak txertatuta.

5.- Erabagi hau eta espedientea Bizkaiko Foru Aldundiari bialtzea, behin betiko onetsia izan daiten.

BILDU-BAKIO taldeko Feliciano Jaureguizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes, Amets Jauregizar eta Jon Peli Hormaetxe zinegotziek, barriz, Plan Partziala behin-behinean onartzearen aurka bozkatu dabe.

Amets Jauregizar zinegotziak, Bildu-Bakio taldearen izenean, euren ezetza arrazoitu dau, era honetara: *Etxegilearen nahia plan partzialean etxebizitza kopuru mugaturik ez azaltzea bada — horretarako egiten da aldarazpena —, berari ondo jatorkon etxebizitza kopurua egiteko, beti be bere interesen arabera; udalak, herriaren interesak kontuan hartuz, nahi horrerri baldintzak ipini behar deutsoz, hau da, etxebizitza tasatu eta babes ofizialei buruz bagilaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Urigintza Legea egokitzea.*

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 20:00etan emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria